

Kalteberatasun-egoeran dauden haurren premiei erantzuteko hartu duten konpromisoa betez

Solidaridad Carrefour Fundazioak eta Gurutze Gorriak 'Eskolara Itzultze Solidarioa' jarri dute martxan, Gipuzkoan arrisku sozialean dauden haurren alde

- Ekimenari hasiera emateko, Carrefour-ek 121.000 euroko dohaintza zuzena emango du eskola-materialean, eta ekarpen horrekin espero dute, hasiera batean, kalteberatasun-egoeran dauden 6.000 haurren premiak betetzea
- Helburu nagusia da gure herrialdean larrialdi sozialean dauden milaka familiarentzat eskola-materiala erosteak suposatzen duen inpaktu ekonomikoa murriztea, eta kalitatezko hezkuntza barne-hartzailea lortzeko bidean laguntzea, Garapen Jasangarrirako 4. Helburuaren ildotik
- Txiki horiek ahalduzko helburua ere badu ekimenak, eskola-ikasturtea hasteko une garrantzitsu honetan

(Gipuzkoa, 2019ko irailaren 5a). – Datorren irailaren 6an eta 7an Gipuzkoak 'Eskolara Itzultze Solidarioaren' XI. edizioa hartuko du. **Solidaridad Carrefour Fundazioak Gurutze Gorriaren alde** sustatutako ekintza bat da, eta Espainiako 48 probintzian antolatuko da (*Parte hartzen duten zentroen zerrenda: <https://www.carrefour.es/grupo-carrefour/fundacion/vuelta-cole-solidaria/#mapa>*).

Ekimen hau sortu da ikasturte berria hasteak larrialdi sozialean dauden milaka familiarentzat suposatzen duen inpaktu ekonomikoa murrizteko eta kalitatezko hezkuntza barne-hartzaile bat lortzeko helburuarekin, Garapen Jasangarrirako 4. Helburuaren ildotik. Txiki horiek ahalduzko helburua ere badu ekimenak, eskola-ikasturtea hasteko une esanguratsu honetan.

Horren guztiaren jakitun, Carrefour-ek 121.000 euroko dohaintza eman du zuzenean, eskola-materialean, edizio honi hasiera emateko. Aurreikuspenen arabera, baliabide horiei esker Espainia osoan kalteberatasun-egoeran dauden 6.000 haurrek alor horretan dituzten premiak betetzeko aukera izango da. Hortik abiatuta, kanpainaren esparruan herritarrek egingo dituzten ekarpenak batuko dira.

Carrefour Goierri eta Carrefour Oiartzun probintziako hipermerkatuek parte hartzen dute bilketa-kanpaina honetan. Estatu-mailan, Gurutze Gorriko 3.500 boluntariok baino gehiagok arreta eskainiko diete eskola-materiala (koadernoak, boligrafoak, arkatzak, errotuladoreak, etab.) dohaintzan emateko Carrefour zentroetan ezarritako mahaietara hurbilduko diren herritarrei. Ondoren, tokiko Gurutze Gorriek banatuko dute dohaintzan emandako eskola-

materiala, parte hartzen duten probintzietan adingabeak ardurapean dauzkaten milaka familia onuradunen artean.

‘Eskolara Itzultze Solidarioaren’ aurreko edizioan, **Konpainiak zuzenean emandako dohaintzari eta herritarrek egindako ekarpenei esker**, Solidaridad Carrefour Fundazioak **584.282 euro jarri zituen, eskola-materialean, Gurutze Gorriaren eskura**. Gutxi gorabehera, baliabide horiei esker Espainia osoan kalteberatasun-egoeran dauden 15.000 haurrek alor horretan dituzten premiak betetzeko aukera izan zen.

Lankidetzeta-arloak

Espainiako Gurutze Gorria eta Solidaridad Carrefour Fundazioa 2001. urteaz geroztik elkarrekin ari dira lanean, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboen bizi-baldintzak hobetzen laguntzea helburu duten hainbat ekimen sozialen bitartez.

2017ko apirilean bi erakundeek beste hiru urterako berritu zuten larrialdiek eta hondamendiek eragindakoei arreta eskaintzeko 2001. urtean sinatutako lankidetzeta-hitzarmena. Eremu horretan, **Solidaridad Carrefour Fundazioak Esku-hartze Psikosozialean espezializatuta dauden Larrialdietan Berehalako Erantzuna emateko 26 Talderen (ERIE) garapen, prestakuntza eta mantentzean ere laguntzen du**. Talde horiek hondamendien biktimei eta haien senitartekoei eskaintzen diete arreta.

Espainiako Gurutze Gorria, 1864an sortua, estatuan nahiz nazioartean pertsona kalteberen alde lan egiten duen erakunde humanitarioa da, prebentzio, zaintza, larrialdi eta errekupeazio eta garapen ekintzak eginez, 200.000 boluntario baino gehiagori esker. Informazio zabalagoa lortzeko, kontsultatu www.cruzroja.es

Solidaridad Carrefour Fundazioak gizarte-ekintzaren alorrean Carrefourrek Espainian garatzen dituen programa guztiak koordinatzen ditu. Desgaitasunak dituzten edo gizarte-bazterkerian dauden haurren mesedetan egiten diren proiektuak bultzatzen ditu bereziki. Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen laguntzen die eta larrialdi-operazioetan esku hartzen du Espainian. Era berean, desgaitasunak dituzten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen laneratzea bultzatzen du eta Taldeko langileek hainbat gizarte-ekintzatan parte har dezaten sustatzen du.

Solidaridad Carrefour Fundazioaren bideo instituzionala:

<https://youtu.be/Wz7PEZqfXpM>



Solidaridad Carrefour Fundazioaren 2017ko Memoria

<https://www.carrefour.es/grupo-carrefour/fundacion/inicio/>

ILUNION Comunicación Social. Eliezer Alonso: 91 545 01 89 / 663 010 227 elonso@ilunion.com

Carrefour-en kanpo-komunikazioa : 91 333 12 40 / 59 prensa.es@carrefour.com

Gurutze Gorria: Komunikazio- eta Irudi Departamentua 91 335 45 95
comunicacion1@cruzroja.es